



**KIROL KUDEAKETARAKO BALIABIDE ZENTROA**

**- 2012 PROGRAMA -**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2012ko urtarrila*

## **2012ko JARDUEREN PROGRAMA**

### **AURKEZPENA**

#### **GEHIAGO EGIN GUTXIAGOREKIN**

Aurten ere, eta dagoeneko badira 20 urte, KIROLARTEK- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiaren Kirol Kudeaketarako Baliabide Zentroa- 2012ko jardueren programa aurkezten du.

2011ko programa aurkeztean, krisialdia aipatzen genuen, baina ez genuen irudikatzen 2012an egoera honetan egongo ginenik. Hori dela eta, aurkeztera goazen programa honek xumea izan nahi du, eta bizi dugun egoerara egokitzen dena.

Izenburuak adierazten duen bezala, nahitaezko gauza GEHIAGO egitea tokatzen da baliabide GUTXIAGOREKIN. Gutxiagorekin gehiago egitea ez da utopia, kirolaren balio positiboetan oinarrituko den bide bat baizik.

PARTE-HARTZE HANDIAGOA, sistema osatzen duten eragile guztien koordinazioan oinarritua, non pertsona, instituzio, gizarte eta kirol erakunde, ikastetxe, enpresa eta abarren lankidetzaren emaitza kudeaketa ona izango den. Eragile bakoitzaren eginkizunak aitortu eta errespetatu egingo dira, eta oztopoak GUTXIAGOTU, bereziki zurruntasunen eta alferrikako burokrazien ondorioz sortuak.

ZEHARKAKOTASUN GEHIAGO eta tankan itxiriko konpartimendu GUTXIAGO, gizarte sektore guztien sinergiak baliatuz, eta kirol politikak lerrotatuz herri, eskualde, lurralde eta nazio mailan gauzatzen diren beste batzuekin.

PERTSONA GEHIAGO Gipuzkoako kirol sistemak duen giza aktiboaren aberastasuna bultzatzen, deszentralizazio GEHIAGOREKIN eta hierarkizazio GUTXIAGOREKIN, ebaluazio GEHIAGOREKIN eta emaitzei beldur GUTXIAGOREKIN, pertsonen proiektuetan parte har dezaten ahalbidetuz profesionalizatzeko handiagoren bidez, betiere BIKAIN TASUNERA bidean.

Ebidentzietan oinarrituriko kudeaketa GEHIAGO eta intuizio GUTXIAGO; datu fidagarriak eskura izan, eta jakin benetan herritarrek zer nahi duten, egunerokotasuna zehatz-mehatz ezagututa, esku-hartzeak eragingarriak eta etengabe berritzen direnak izan daitezten.

Era berean, GUTXIAGOREKIN GEHIAGO egiteak gure "bezeroen" kultura eta portaerak aldatzea esan nahi du sektore guztietan; kudeaketak eta zerbitzuen erabilera egokiak zer esan nahi duen komunikatzen IKASI behar dugu, zenbat kostatzen diren egiten eta erabiltzen ditugun gauzak, eta nor ordaintzen dituen; iraunkortasun HANDIAGOA eta alferrikako gastu GUTXIAGO izatea bilatu behar dugu, aurrera begira profesionalen, herri elkarteen, boluntarioen eta enpresa sarearen ekarpenaren bidez azpiegitura, erakunde eta zerbitzuei eustea ahalbidetze aldera.

Azkenik, adierazi, KIROLARTE programa irmoki lerrokatzen dela kirolaren eta jarduera fisikoaren sustapenean OSASUN helburuak lortze aldera, besteak beste UNESCOren eta Munduko Osasun Erakundearen (MOE) gomendioei jarraituz. Ildo horretan, AKTIBILI (Jarduera Fisikoaren Euskal Plana) jarriko da abian, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, hiru hiriburuek eta EUDELe bultzaturik, eta EAEko hainbat erakunde publiko nahiz pribatuen laguntzarekin. Kirol Zuzendaritza Nagusi honetatik Gipuzkoako kirol eta gizarte eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu kirol eragileek eurek proposaturiko jardueretan eta sortzen diren ekimen berrietan parte hartzera.

Gipuzkoa, 2012ko urtarrila.

## **ANTOLAMENDU EGITURA**

### **1.- Zuzendaritza Batzordea:**

Presidentea: Asier Sarriegi Zumarraga. Kiroletako zuzendari nagusia

Lehendakariordea: Carlos Alfonso. Kirol Zerbitzuko burua

Koordinatzaile nagusia: Julián Gómez. Kirol Zerbitzuko programa burua

Batzordekideak:

Juantxo Villarreal. Udal eta Eskualde mailako Kirolaren Kudeaketa arloko arduraduna.

Imanol Fernández de Larrinoa. Kirolean Hasteko arloko arduraduna.

Jesús Gutiérrez. Kirol Entitate Elkarkorrak Modernizatzeko arloko arduraduna.

Teresa Gaztañaga. Jarduera Fisikoaren, Kirolaren eta Osasunaren arloko arduraduna.

Julián Gómez. Kirola eta Gizartearen arloko arduraduna.

Josu Lekaroz. Informazio eta Komunikazio Teknologien Arloaren arduraduna.

José Luis Andueza. Kirol Instalazioen arloko arduraduna.

**2.- Idazkaritza Nagusia:** Jon Ander García de Cortázar. Kirol Management SLU

## **URTEKO EGITARUA AURKEZTEKO JARDUNALDIA**

**Eguna:** urtarrilak 26.

**Lekua:** Kirol Etxea (Atano III.a aretoa). Donostia

**Ordua:** 19:00/20:15

**Aurkezlea:** Asier Sarriegi Zumarraga. Kiroletako zuzendari nagusia

**Irekiera hitzaldia: "ZERUMUGA BERRI BAT KIROL  
KUDEAKETAN: ZORIONTASUN HANDIAGOA, KUDEAKETA  
HOBEA"**

**Hizlaria:**

Juan Carlos Maestro Arcos

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura

Negozioen Europar Eskola MBAan masterra

Benalmadenako Kirol Patronatuaren zuzendari teknikoa

Unibertsitate desberdinetan Master Irakaslea

Giza Baliabideetan zale sutsua

Hainbat argitalpen arrakastatsuren egilea:

- "Regalate felicidad"
- "Regalate liderazgo"
- "La estrella de Navidad, sigue tu estrella, consigue tus sueños"

## UDAL ETA ESQUALDE MAILAKO KIROLAREN KUDEAKETA ARLOA

**Arloaren arduraduna:** Juantxo Villarreal.

### **Saio teknikoak:**

- Gipuzkoako udalerriek herriko kirol elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak aztertu. Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta hura tokiko kirol sistemara aplikatzea.

### **Jardunaldiak:**

- Prestakuntza/ informazio jardunaldiak tokiko kirol arduradun politikoentzat. EUDELeK antolatuko du KAITen laguntza teknikoarekin. (Kirolaren Aldeko Iritzi Taldea).
- Udaletako kirol zerbitzuetan zerbitzuak ematen dituzten kirol enpresetan kirol instalazioen lan hitzarmena aplikatzeak dakartzan ondorio ekonomiko eta sozialei buruzko jardunaldia.

### **Ikastaroak:**

- "Zuzendaritza teknikak eta trebetasunak kirol kudeaketan: administrazio elektronikoa" ikastaroa.

### **Tailerrak:**

- Politika publikoen ebaluazioa kirol sisteman.



## **KIROLEAN HASTEKO ARLOA**

**Arloaren arduraduna:** Imanol Fernández de Larrinoa.

### **Saio teknikoak:**

- Kirol orientazioa. Eskola kirolaren eremuan kirol orientazioko plan bat gauzatzeko gakoak.

### **Jardunaldiak:**

- Ikastetxeko kirol proiektua. Eskola kirolaren etorkizuna Gipuzkoan. Donostiako esperientzia.
- Jokabide egokiari buruzko jardunaldia Gipuzkoako eskola kiroleko monitore eta koordinatzaileentzat.
- Eskola kirol egokituari buruzko mugaz gaindiko 1. topaketa.
- Kirolariaren profil psikologikoa heziketa prozesuan.

### **Ikastaroak:**

- Ikastaroak online eskola kiroleko monitoreentzat: 2012ko otsaila eta urria.
- Gipuzkoako kirol mugikortasun iraunkorraren plana garatzeko hezitzaileak prestatu.

### **Tailerrak:**

- Eskola kiroleko ereduak: azken gogoeta eta etorkizunerako proposamenak.

## **KIROL ENTITATE ELKARKORRAK MODERNIZATZEKO ARLOA**

**Arloaren arduraduna:** Jesús Gutiérrez.

### **Saio teknikoak:**

- Mugikortasun iraukorrerako planak. Gipuzkoako klubetan mugikortasun planak garatzeko gakoak. "Kirol Busean Elkarrekin" mugikortasunari buruzko aplikazioaren aurkezpena klub eta federazioentzat.
- Genero ikuspegia entitate elkarkorretan sartzeari buruzko saio teknikoa.

### **Jardunaldiak:**

- EAEko federazio sistema berrantolatzeke proiektua.
- Pirinio Atlantiarren Departamentuko eta Gipuzkoako federazioetako nahiz kirol klubetako agintarien mugaz gaindiko 1. topaketa.

### **Ikastaroak:**

- Trebetasunak kirol kudeaketan: administrazio elektronikoa.

### **Tailerrak:**

- Kirol entitateak etengabe hobetzeko kudeaketa.



## JARDUERA FISIKOAREN, KIROLAREN ETA OSASUNAREN ARLOA

Arloaren arduraduna: Teresa Gaztañaga.

### Saio teknikoak:

- Aktibili-ren aurkezpena. Jarduera Fisikoaren Euskal Plana.
- Kirol dopajearen lege proiektuaren aurkezpena. 2011-12-27ko Gobernu Kontseiluaren erabakia.

### Jardunaldiak:

- Eskola adinean egin behar diren **mediku azterketei** buruzko gomendioak: azterketa mota, maiztasuna, protokoloak, eta abar.

### Ikastaroak:

- "Jarduera fisiko osasungarrirako programa pertsonalizatuen kontrola, orientazioa eta jarraipena" ikastaroa.
- "Jarduera fisikoa agintzea pertsona desgaituei" ikastaroa.

## **KIROLAREN ETA GIZARTEAREN ARLOA**

**Arloaren arduraduna: Julian Gomez.**

### **Saio teknikoak:**

- Kirol lanbideen arauketa.

### **Jardunaldiak:**

- Kirolean indarkeria eta arrazakeria prebenitzea.

### **Tailerrak:**

- Kirolak Gipuzkoan daukan eragin ekonomikoari buruzko tailer iraunkorra.

### **Kongresua:**

AEISAD XII. Biltzarra. ERANTZUKIZUN SOZIALA, ETIKA ETA KIROLA  
Antolatzailea: Kirolean ikerkuntza soziala gauzatzeko espainiar  
elkartea eta KIROLARTE, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol  
Kudeaketarako Baliabide Zentroa.

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza

Laguntzaileak: KKG, FAGDE eta KAIT/Kirolaren Aldeko Iritzi Taldea

Kudeaketa teknikoa: Kirol Management SLU

**Kirol Etxea. Donostia, 2012ko urriaren 25a, 26a eta 27a.**

## **INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN ARLOA**

**Arloaren arduraduna:** Josu Lekaroz.

### **Saio teknikoak:**

- Aplikazio informatikoko modeloa, Oiartzunen eta Lezon garatu dutena jarduera fisiko eta kirol datuak jasotzeko, udaletako kirol zerbitzuetako arduradun teknikoentzat.

### **Jardunaldiak:**

- Aplikazio informatiko bakarra Gipuzkoako kirol federazio guztientzat. Errealitatea edo utopia.

### **Ikastaroak:**

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren laguntzak eta diru laguntzak telematikoki kudeatzeko ikastaroa online.
- Sarean informazioa modu eragingarrian bilatzeko ikastaroa online.
- Tokiko kirol sistema online kudeatzeko baliabideak arduradun politikoentzat.

### **Tailerrak:**

- TICak erabiltzeko aholkularitza tailer iraunkorra kirol entitateentzat.

## **KIROL INSTALAZIOEN ARLOA**

**Arloaren arduraduna:** José Luis Andueza.

### **Saio teknikoak:**

- "Arraunketako eta piraguismoko pabiloien ingurumen kudeaketa"ri buruzko saio teknikoa, kirol elkarte eta federazioei zuzendua.
- "Igerilekuetako isurketak ingurumenera egokitzea: isurketa eskaera eta deklarazioa betetzeko jarraibideei buruzko saio teknikoa", URAkoen eskutik (Gipuzkoako Ur Agentzia).
- Bisitaldi teknikoa Logroñoko azken belaunaldiko instalazioetara, udaletako kirol zerbitzuetako agintari politiko eta langileei zuzendua.
- Bisitaldi teknikoa Paueko eta inguruetako (Pirinio Atlantiarretako Departamendua) azken belaunaldiko instalazioetara, , udaletako kirol zerbitzuetako agintari politiko eta langileei zuzendua.
- Bisitaldi teknikoa Bilboko azken belaunaldiko instalazioetara, udaletako kirol zerbitzuetako mantenimendu langileei zuzendua.

### **Jardunaldiak:**


- Igerilekuetako autokontrolari buruzko eskuliburu eta araudien berrikuspena.

### **Ikastaroak:**

- Energia eraginkortasuna kirol instalazioetan.

### Tailerrak:

- Igerilekuei buruzko tailer iraunkorra, Gipuzkoako Osakidetzako langileek, Kirol Zerbitzukoek eta udaletako kirol zerbitzuen arduradunek parte hartuta.
- Kirol instalazioen mantenimenduko lan taldearen tailer iraunkorra. Bisitaldi teknikoa Bilboko azken belaunaldiko instalazioetara.



## 2012rako proiektuak

**P2012/01.-** "Gida praktiko bat prestatzea nutrizioari buruz eta lantokian jarduera fisikoa sustatzeari buruz".

Proiektuaren arduraduna: Ordiziako D'Elikatuz.

**P2012/02.-** "Fitxa berriak prestatzea kirol instalazioetako ingurumeneko autokontrol gidarako: Txuri Urdin izotz jauregia".

Proiektuaren arduraduna: Donostiako Saima aholkularitza enpresa.

**P2012/03.-** "Fitxa berriak prestatzea kirol instalazioetako segurtasuneko autokontrol gidarako: arraunketa eta piraguismoko pabilioiak".

Proiektuaren arduraduna: IBV/Valentziako Unibertsitateko Institutu Biomekanikoa.

**P2012/04.-** "Kirol-tech" Gipuzkoako kirol sisteman TICak aplikatzean berrikuntza ekintzen garapena.

"Igerilekuen autokontrolerako tresna informatikoa"

Proiektuaren arduraduna: Donostiako TAK enpresa.

## GIPUZKOA KIROLAK THINK TANK

### Gipuzkoako kirolaren berrikuntzarako eta ekimenerako foroa"

#### HELBURUA:

Helburua da Gipuzkoako kirol sistemari topagune bat eskaintzea ideiak eta proiektuak sortzeko, hartara, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten Gipuzkoako, herri erakundeak, elkarteak, erakunde pribatuak eta merkataritzako entitateak, bikaintasuna lortzeko bidean jar daitezten.

#### SUSTATZAILEAK:

- KIROLARTEK, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiaren Kirol Kudeaketarako Baliabide Zentroa.
- GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA, Mondragon Corporation.
- SPORTIS, Red de Innovación Tecnológica y Social en el Deporte del Cluster GAIA.

#### Foroaren bigarren saioa:

**Gaia:** Kirol sistemaren kapital soziala: pertsonak.

**Lekua:** Baiona, Bidart edo Hendaia

**Bordeleko Unibertsitatearen eta Iparraldeko surf industriaren lankidetzarekin.**